

# Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko azaroaren 15a

\*



## Organoak zaharberitzen

■ Duela gutxi zaharberitu da Berako San Esteban parrokiako organoa eta ehun urte bete dituela-eta *inauguratu* dute. Nafarroan dauden organo erromantikoen artean garrantzitsuenetakoa, Usabiaga anaiek egin dioten moldaketa apro-

betxatuz ekarri dugu orriotara. Bidenabar, organoen ardura Artzapezpikutza-barrutiarena dela aintzat hartuz, herrialdean dauden organo esanguratsuenen errepassoa eta tradizioa gogora ekarri ditugu. ■

### Metropoli forala

FELIPE RIUS



Ez dakit zergatik gertatzen den, baina abantaila fiskalak, errentaren gaineko zerga, etekinak eta antzeko hitzak entzuten ditudanean Kieslowskiren trilogiaren filmeetan edukiontzietan, kontenedoreetan botila bat botatzen saiatzen diren atsoak etortzen zaizkit gogora. Agian psikoanalistarengana joan beharko nuke ideia-asoziazio bitxi honen arrazoiak azal diezazkidan. Hasiara batean, hiru koloreen izenak dituzten pelikulak lehenbizikoz ikusi nituenean ez zitzaidan bururatu neoliberalismo bortitzaren eta emakume zahar horien artean inolako harremanik egon zitekeenik. Zulo estu batetik botatzen den botila bizitzaren bukaeraren metafora ederra eta beldurgarria iruditu zitzaidan, eta geroztik ez dut botila bakar bat ere bota zakarrontzira. Nonbaiten gorde behar nituenez, liburu guztiak kendu eta apa-

## Neoliberalismoa eta botilak

letan jarri nituen zerbeza, ardo eta whisky botilak, baina laster geratu nintzen tokirik gabe eta arropa ere botatzen hasi nintzen armairuetan ontziak gorde ahal izateko. Arroparik eta libururik gabe bizi ginela, andregaiak ezin zuela gehiago aguantatu esan zuen egun batean eta pisutik eta nire bizitzatik atera zen, baina joan aurretik botila bat hartu zuen. Nik argazki kamera hartu eta segitu egin nuen —iragarki batean irakurria nuen argazki kamara batekin neure historia idatz nezakeela—. Botila kontenedorean botatzen ari zen momentuan egin nion argazkia eta keinu sinboliko harel ulertarazi zidan ez nuela gehiago ikusiko, botila nirekin bizi izandakoa besterik ez zen. Anpliazio handi bat atera nuen eta horman daukat, botilen artean eta Kieslowskiren bideoen ondoan. Orduak ematen ditut argazkiari eta botilei begi-

ra. Aspertzen naizenean kalera ateratzen naiz argazki kamera hartuta —nire historia idatzi nahi dudalako— eta batzuetan beirazko botilak edukiontzian botatzen ari diren emakume zaharrak ikusten ditut —atsoak izaten baitira beira kontenedore berezi horietara botatzen duten bakarrak, ez duzue behin ere gizonezko edo gazterik topatuko—. Argazkiak egiten dizkiet, baina askotan desenfokaturata ateratzen zaizkit, malakoek ez baitidate ongi ikusten uzten. Gero, etxera bueltatzean, telebista piztu eta ekonomiari buruzko berriak besterik ez dira azaltzen pantailan. Kontenedoreetako emakumez gogoratzen naiz orduan eta negarrez hasten naiz berriro. Bai, agian psikoanalistarengana joan beharko nuke argazki kamera hartuta, nire historia idatzen segitu behar baitut.

\* GURE AUKERAK

KONTZERTUAK

**Aizoain:** Konfusión, Plit eta Koma taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, hilak 16, gaueko 23:00etatik aurrera. Artsaian. Sarrerak, aurretik hartuz gero, 800 pezetan izanen dira, eta han 1.000 pezetan.

**Elizondo:** New Orlean jazz & tap folk taldeak kontzertua emanen du Arizkunenea Kultur Etxean etzi, hilak 17. Emanaldia arratsaldeko zortzietan izanen da.

**Gares:** Fundamental aretoan Niña Pastori abeslaria ariko da bihar, gaueko hamaiketarik aitzina.

**Burlata:** Hall Foot Outside taldeak kontzertua eskainiko du Black Rose aretoan 20:30etan.

ANTZERKIA

**Zizur Nagusia:** Rayuela taldeak *El barbero de Sevilla* antzeziana eskainiko du Kultur Etxean.

**Iruñea:** Markeliñe teatro taldeak *Garbo S.A.* antzelana eskainiko du Nafarroako Antzerki Eskolan igandean arratsaldeko zortzietan. Sarrerak 700 pezeta balio du.

**Barañain:** Kukubiltxoren eskutik *Behin bazen lana* ikusteko parada dago datorren asteartean, hilak 19, arratsaldeko seietan Udaletxean.

**Atarrabia:** Anonima Teatrok *Chica busca chico* emanen du gaur arratsaldeko zortzietan. Sarrera doan da.

ERAKUSKETAK

**Iruñea:** Juan P. Herranzen lanak ikusgai dauden *Oleos del río Arga* izenburupean Navarrieriako kultura zentruan. Erakusketa datorren astelehena arte izanen da zabalik.

**Iruñea:** Dick Rekalderen mar-goak ikusteko aukera dago Nafarroko Unibertsitate Publikoko erakusketa aretoan hilaren 30a bitartean.

**Altsasu:** *Arte eta ingurugiroa III Lehiaketa*-ko lanak ikusteko parada dago azaroaren 24a bitartean Udaletxean.

IKASTAROAK

**Iruñea:** Urpean igeri egiteko ikastaroa egiteko aukera dago. Lortzen den titulua nazioartekoa da eta maila guztiak irakasten dira. Informazioa eta izen ematea 17 22 38 telefonoan egin behar da.

**Zizur Nagusia:** Gazteentzako herri dantza ikastaroa izanen da herriko kultur etxean. Goizez edota arratsaldez aritzeko aukera izanen da. Hilabete bakoitzeko 1.000 pezeta (40 libera) ordaindu beharko da.

nafarkronika

Euskalkiak

Alberto Barandiaran

Talde bat sortu berri da Iruñean euskalkien inguruan solas egin, hausnarketa egin, azterketa egin edo dena delakoa egiteko: nafar euskalkien egoerari buruz zer lan egin daitekeen ikusteko. Lehendabiziko bilerak egin dira jada, eta kezka badagoela antzemateko balio izan dute, sikiera.

Batuaren garai bateko gutxiesleen argudioak erabili gabe ere, onartuta hizkuntza bateratuaren beharra, gero eta gehiago dira tokian tokiko hizkerak kezkatu, liluratu, gogobete eta erakarririk egiten dituenak. Ikasitako batua horrek, askotan, ez duelako norbere herriko mintzaira horren hurbiltasuna, eta ez direlako erraz aurkitzen horren garrantzitsuak diren nabardurak azaltzeko hiz egokiak. Badira adibideak.

Sakanako Guaixe aldizkarian haste-hastetik darabilte herrietako euskara idazteko irizpidea. Horrek polemika ere piztu du aldizkarian berean, aldekoen eta kontrakoaren artean. Orain eztabaidari ekin diote bertan, zehaztu eta finkatzeko aldizkarian manelatu behar den hizkuntz eredu. Halaber, Sakanako hainbat herritan kezka dago gazteen artean, ez delako erabiltzen bertako hizkera —joskerak, aditzak, hiztegia—, uniformatuegia delako eskolatik datorren batua, eta herrikoia berreskuratu behar den ustea dagoelako.

Leitzan bertan asteburu honetan egingo da hitanoa ezagutarazteko ikastaro bat, franko galduta baitago, eta ez bakarrik gazteen artean. Hasieran emakumeei zuzenduta antolatu da

ekitaldia, baina gero IKAKoekin ere hitz egin nahi da, jende guztiari irekia izan dadin.

Hor daude, besteak beste, gero eta maizago azaltzen diren herrietako hizkerari buruzko argitalpenak —Patziku Perurenarena, Mariano Izetaren *Baztango Hiztegia*—, eta baita urteetako lana eskatu duten lan zientifikoak ere —Orreaga Ibarrak Ultzamako eta Basaburuko euskarari buruz eginkoia, Iñaki Caminok aezkeraren inguruan egin duena—. Hor daude, era berean, literatura idatzian antzematen den aberastasun gero eta oparoagoa, zenbait idazleren ahalegina.

Honekin guztiarekin zer egin, nola bideratu kezka? Lehendabizi, badirudi egokia litzatekeela euskalki —edo hizkera— hauen gaur egungo egoera zertan den zehaztea, oraindik Bonapartek markatutako irizpideekin ari garelako frankotan. Erabilera, hedadura, bizitasuna, prestijioa... hobeki ezagutu beharreko gaiak lirateke. Ondoren, gelditzen dena bizkortzeko saiok egin beharko lirateke. Arlo honetan eskola eta ikastoletako irakasleen ardura azpimarratu behar. Interesgarria litzateke, halaber, tokian tokiko gutxieneko arau bereziak finkatuko balira, alegia, batua txikiak egingo balira, horrela jende guztiarengana iritsi litezkeelako hizkeraren ardatz nagusiak. Zer gehiago? Euskaldunok gerok nahi izango duguna.

Eztabaida bideratu beharra dago. Batua finkatuta dago euskaldun gazteen artean. Bada garaia aminaren hizkuntza ere ganbaratik hartu eta apain dezagun.



asteko pertsonaiak



Jose Ignacio Palacios  
Herrilan kontseilaria

■ Nafarroako Parlamentuak 1995eko abenduaren 9an Nafarroan EIT-Bren hartzea bermatzeko EAerekin hitzarmena sinatzea onartu zuen. Jose Ignacio Palacios Zuasti —Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria— Nafarroako Parlamentuan hitzarmen horren egoeraz mintzatu zen joan den asteazkenean, HBk egindako galderari erantzunez: «Ez in izanen dugu inbertsio handirik egin», «defizita murriztu behar dugu», «beste lehentasun batzuk daude»... Kontseilariaren adierazpenak aintzat hartuz, ez dirudi UPNko Gobernuak hitzarmena gauzatzeko inolako asmorik duenik. Dena dela, Palaciosen hitzetan, «asmoak Elizak ere ez ditu epaitzen», eta ez dugu, inondik inora, Eliza baino gehiago izan nahi. Bestalde, mirariak ere existitzen ei dira.



Mariano Izeta  
Idazlea

■ Mariano Izeta elizondorrek *Baztango Hiztegia* liburua kaleratu du aste honetan, Nafarroako Gobernuak Hizkuntza Politikako departamentuaren eskutik. Elizondoko erlojulariak urte askotako lana bildu du hiztegi honetan, eta duela hamaika urte *Euskera* aldizkarian honen oinarri izan ziren *Baztango Hiztegi Tipia* eta *Baztango erranairuak* liburuxkak kaleratu bazituen ere, esan daiteke oraingoa dela bere lanik osatuena. Izetaren lanaren apaintzailea izan da Paskual Rekalde amaiurtarra, eta aitzinsolasean Pello Salaburu euskaltzain arizkundarrak ere hitz batzuk egin ditu Baztango hizkeraz eta Izetaren liburuz. Izetak berak azpimarratu zuen oraindik badaudela gauza batzuk bil daitezkeenak, baina gehiena egina dagoela. 3.000 hitz inguru jaso ditu liburuan.

ahaztu gabe!



UDAZKENEKO  
KULTUR ZIKLOA

**Burlata:** Urtero bezala, Burlatako Udal Euskara Zerbitzuak Udaletzeko Kultur Zikloa antolatu du aurten. Azaroaren 22ko Mikel Laboaren kontzertua da egitarau horren goiena. Dena dela, ekitaldiak gaur bertan hasiko dira. Kabareta taldeak *Kasketa Kabareta* ikuskaria taularatuko du Axular elkartean, gaueko 23:00etan. Talde berak obra bera antzetzuko du Askatasuna institutuan heldu den asteazkenean, hilak 20, goizeko 9:45etan. Ostegunean, hilak 20, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak Elizgibela kiroldegian ariko dira, arratsaldeko 15:30etan. Azaroaren 22an, aipatu bezala, Mikel Laboaren kontzertua izanen da Elizgibela kiroldegian, gaueko 22:30etan. Sarrerak 500 pezetan (20 libera inguru) izanen dira salgai. Azaroaren 26an, azkenik, Iruña Antzerki Txikiaren *Jaberik gabeko zopaontzia* izanen da gozagai, goizeko 11:30etan eta arratsaldeko 15:30etan, Atarrabiako zinematokian.

adi!

Euskalerrria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 12.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteen-dako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Asteazkenetik ostiralera, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkartriketarak.

## Donapaleu

## Merkatua: bost mendetako historia

Amikuzen urte anitzez hazi ziren arrakasta handiko zaldi anglo-arabiarrak

**G**oizeko zazpietarako laborariek paratuak dituzte salmenta postuak merkatuan. Ostirala da, merkatu-eguna Donapaleun. Aspaldi bezala, Iholdi, Amikuze eta Oztibarreko nekazariak igandeko jantziak soinean paratu, eta ohiturari jarraituz, Baxenabarreko herrira doaz.

Julen Arriola / Iruñea

DONAPALEUKO merkatua Nafarroa Behereko garrantzitsuenak da. Ostiralero, eguraldia gora-behera, Baxenabarreko hiriko bi mila biztanleek asteko beste egunetan arras ezohikoa den mugimenduz baterik ikusten dituzte karrikak. Goizean goiz azaltzen dira nekazariak abere eta baratzeko mozkinekin, baina egun batez txoko guztiak dira merkatu.

Iparraldean gutxitan ikus daitezkeen txurro saltzailea ere ez da oso goiz altxatzen. Goizeko zortzi eta erdiak dira Errepublikako Plazan arropa, hantekakoak eta etxeko tresnetako salmenta-mahaiak jartzen direnerako. Merkatu ondoko espaloietan dira baratzki eta fruta, arnoa eta ezta. Eliza inguruan arraina, fruta, gozokiak eta gasna, Arnaud Oihenart kalean dauden mozkin berberak.

Barnealdeko herrietako merkatuak, oro har, behera ari dira hipermerkatuak non-nahi jartzen ari direlako, baina Donapaleukoak ehundaka urtetako tradizioa du oraindik Baxenabarre-



Baxenabarreko merkaturik garrantzitsuenak da Donapaleukoak.

JULEN ARRIOLA

ko zati handiena hartzen duen Amikuze osoan. Hirian gorderik dituzten artxiboen arabera, XV. mendekoak dira merkatu honen berri ematen dituzten lehenbiziko lekukotasunak, garai hartan Donapaleuk biltzen zuelako harrerien barnean Nafarroako erresumako alderdi honetako jardueren administratibo gehiena.

Oraindik gaur egun «gras-en-foie-gras, ahate-foie» merkatua izendatua bada ere, txerrien merkatua da benetan galdu dena, animalia honen hazitzaile handienak, urteetan, Donapaleura erakarri zituenak. Handia baitzen hagitz merkatu hau, eta zaharrenek oraindik dute gogoan Donapaleu txerrez beteta, baime-

nik eskatu gabe etxeetaraino sartzen zirenak, geltoki zaharreen konboietan sartu eta gero urrun eramango lituzketen trenak zain zeuden bitartean.

Donapaleuko historiari jendeak ez du ezagutzen ere Amikuze izan zela urte askotan zaldi anglo-arabiarraren sorterrria. Zaldi hauek gero Parisko hipodromotik sari garrantzitsuenak irabazten zituzten. Salmenta guztiak merkatu honetan egiten ziren.

Ohiturak, hala ere, ez dira oraindik aldatu. Donibane Garaziko merkatuan —abereak dira hor nagusi— abeltzainek ez dute lan egiten, eta egun osoa hirian ematen dute, baina Donapaleun dena egiten da eguerdia baino

lehen, ez bada ariatsaldeko lehen orduetan trinkete partiduren bat: orduan bazkariari lotzen zaio jendea duda handirik gabe.

Nekazarien eta tratularien arteko negozioak eta hamaketakoa akituta, goizeko hamarretarako kaleetan animazioa da nagusi. Urtaro honetan, hala ere, negozio nagusia ez da merkatuan, goraxeago baizik, Lur Berri kooperatibaren egoitza. Izan ere, merkatuak egun duen jardueren ekonomiko nagusia ereiteko artoa baita, eta produktu horretan espezializatua dago Baxenabarreko kooperatiba. Horren lekuko, datu ofizialak: Baionako kaiaren negozioaren % 25 ereiteko artoak ematen duenarekin egiten da. X

## Leitza

## Herriko hitanoa ikasteko saio bereziak

■ Ttanttoka emakume taldeak eta IKA euskaltegiak antolatuta dute bi eguneko ikastaroa, gaur hasita

I.A / Leitza

LEITZAKO Ttanttoka emakume taldeak, IKAREN laguntzarekin, solasean gero eta gutxiago erabiltzen den hitanoa (hiketaren mintzatzea) lantzeko aukera eskaintzen du. Gaur eta bihar izanen da ikastaroa. Bereziki herriko emakumei zuzendua den arren, gaian interesatua dagoen edonork har dezake parte. Ikastaroak, Ima Zestau Ttanttoka taldeko partaideak dioenez, bi helburu ditu. Batetik, gero eta gutxiago mintzatzen den hitanoa, herri baten ezaugarria izanik, berreskuratzea, eta bestetik, belaunaldi bateko emakumeak urteak joan urteak etorri hartu duten ezagutza balaunaldi gazteagoi erakustea eta pasatzea.

Hitano saioa gaur eta bihar izanen da. Gaur, arratsaldeko 7etatik 9tara Bittorio Lizarraga euskara irakasleak saio teorikoa

emanen du Leitza IKAKo euskaltegian. Lizarragak hiketan nola mintzatu behar den zehaztu eta laburbilduko du. Bihar, berriz, kafe-solasaldia antolatuta du Ttanttokak Torrea tabernan. Arratsaldeko lauretan jarri dute hasteko ordua, eta kafea hartu bidenabar mingaina jarriko da dantzan. Herriko emakume talde batek hiketan egindako solasaldia entzun eta gero, praktikatzeko dinamika lortu nahi da.

Emakumeek antolatuta den arren eta mintzapraktikarako dinamika emakumeek hasiko duten arren, ez dago hauei bakarrik zuzendua. Antolatzaileek diotenez, ez da emakumeak bakarrik aritzeko saioa: nahi duten herriar guztiak hurbil daitezke Torrea eleketan aritzera. Ima Zestauk azaldu duenez, hiketan aritzeko eta aurreko belaunaldien jakinduria jasotzeko prest dagoen edonorentzat atek zabali



Huitziko Martimintxikiko Lontxa zena eta Ima Zestau tartarrean.

daude. Beraz, ahal duen guztia joateko deia luzatu dute. Gainera, kafea Ttanttoka emakume taldearen kontu izanen da.

Hiketaren aritzeko saio berezia hau hitanoari buruz Leitza

IKAK aurki antolatuko duen ikastaro baten aitzindaria da. Hitanoa eta bereziki Leitza lantzeko asmoa dauka. Beraz, gaurko eta biharko hasiera besterik ez dira. X

## Bortziriak

## Garik kontzertua emanen du gaur Arantzako Ekaitza elkarteak

■ Ekitaldi ugari bertan eta Igantzin asteburu honetan, kultur astearen barrenean

Jon Abril / Bera

ARANTZAN atzo hasitako kultur asteak igandera arte iraunen du eta ekitaldi ugari izanen dira bertan. Gaur arratsateko 20:00etatik aitzinera, Garik, Hertzainak taldeko kantari izandakoak, kontzertua emanen du Ekaitza elkarteak. Ordubete geroago eta leku berean afaria izanen da.

Bihar, berriz, arratsaldeko hiruretan haurrei zuzenduriko birziklaia tailerra izanen da eskolako patioan Atelaz taldearen eskutik. Tailerrak bukatzean berendua eskainiko zaie haurrei. Zortzietan, Ekaitza elkarteak Jose Ramon Agirre mendigoizaleak hitzaldia eta diapositiba emanaldia egingen du: *Zazpi lurraldetako tontorrak* izenekoak, hain zuzen.

Kultur Asterako antolatu dituzten ekintzak igandean bukatuko dira, Baserritarren Egunarekin. Etzi goizeko 10:00etatik aitzinera bertako produktuen erakusketa zabalduko da frontoian. Eguerdian txalapartariak saioa eskainiko dute eta ordu bietan Ekaitza elkarteak herri bazkaria izanen da.

Igantzin, bertalde, herriko gazteek antolaturik eta ostalari zein herriko hainbat elkarrekin laguntzarekin kontzertua izango da gaueko 10:30etatik aitzinera. Bertan izanen dira Urtz, Exkixu eta Lesakako JFK taldeak. Sarre-ra 800 pezeta kostako da eta bertan erosi beharko da.

## Feriak Donezteben gaur eta Lesakan hurrengo astean

● Elizondoko feriak egin ondoren, gaur Doneztebeakoak izanen dira. Goizean azientzen feria izango da. Salerosketan dabilzanak gero eta gutxiago izan arren, tratanteak batean eta bertean ibiliko dira. Aziendaz gain, bertelako saltzaileak ere izanen dira kalean.

Eguerdian bertso saioa izanen da Merkatu Plazan, baina feria eguneko ekitaldi nagusia arratsaldeko bostetan egingen den Nafarroako aizkolari txapelketa da. Hamarna enbor ebaki beharko dituzte Larretxea, Senosiain eta Etxeberriak.

Lesakako feriak, bertalde, hurrengo asteazken eta ortzegunetan egingen dira. Asteazkenean Ajoarriero Lehiaketa eta musika izanen dira ekitaldiaren osagarri merkatu egunean. Ortzeguna izanen da Lesakako feriko egun nagusia. X

Nafarroako organoak  
txukuntzen

# Organoen barrenak garbitzen

Berako organoa zaharberritu dute eta horren ondotik Nafarroan diren beste batzuk ari dira moldatzen

**A**rtzapezpikutzak barrutiaren aginduz Nafarroako hainbat elizetako organoei barrenak garbitzen ari zaizkie. Duela gutxi, ehungarren urtea betetzen zuela-eta, Berako organoa inauguratu zuten Hernaniko Usabiaga anaiek egindako zaharberrietaren ostean. Berakoaren ondotik, herrialdean garrantzi historikoa duten beste batzuk ere moldatzen ari dira.

Irene Arrizurieta / Iruñea

NAFARROAKO Artzapezpikutzak barrutiaren lana da parrokietako organoen ardura. Herrialdean dauden elizen eta bertako hondareen jabe denez, berari dagokio organoen moldaketa eta mantenua. Zer zaharberritu behar den Artzapezpikutzak erabaki eta bere gain hartzen badu ere, organoaren garrantziaren arabera. Gobernuaren laguntza jaso dezake Principe de Viana erakundearen bidez.

Herrialdean 150 instrumentu dauden arren, horietatik gutxi batzuk zaharberritzen dira goitik-behera. Julian Ayesak —Artzapezpikutzako Organuen Zerbitzuko zuzendariak eta bertako organojoleak— parrokietako organojoleekin mintzatu ostean erabakitzen du zer eta nola moldatu. Zaharberritzea, Ayesak dioenez, irizpide batzuk aintzat hartuz egiten da. Lehenik eta behin, «organoak zaharberritzerakoan balio historikoa duena moldatzeko joera hartu dugu, baina beti ere, egun ematen zaion erabilerari egokituz». Bigarrenik, aldi berean ez da instrumentu bakarra moldatzen, batzuk baizik, material asko kanpotik ekarri behar delako. «Organeria oso espezializatua dago eta hemen ez daude horretan soilik aritzen diren enpresak. Material asko Alemaniatik —motorrak— eta Ingalaterratik —elektrikoa— ekartzen da», azpimarratu du Ayesak.

Organoak, garaian garaiko musika interpretatzeko egokituak izan direla aintzat hartuz, mendeak joan mendeak etorri aldaketak izan dituzte. Beraz, Ayesaren irudiko, «organo deituran bakarrik dute zerkusia». Herrialdean dauden organoak ere, denbora-ekin eta ondoko herrietako jorei jarraikiz, hainbat aldaketa izan dituzte; batzuk egoera nahiko txarrean daude pipiak, hezetasunak edo hautsak hartuak.


**Antzinako organotik gaurkorako zubia: mekanikotik elektrikora** • Musika garatzen joan den heinean, organoak ere bilakaera horri jarraitu dio. Foru Komunita-

tean Barrokoan eraikitakoetatik abiatuz, XX. mendearen erdialderainokoak aurki daitezke. Barrokoak —XVIII. mendea— dira Uztarroze eta Ihabarkoa, erromantikoak —XIX. mendea— Berakoa eta Lesakakoa, eta moderno —XX. mendea— Iruñeko katedralekoa. Guztiak organo deitura hartzen duten arren, batetik bestera alde handia dago. Uztarroze eta Ihabarko organoak Ba-

Nafarroan batez ere organo barrokoak aurkitu daitezke. Hala ere, badira XIX. mendeko organo erromantiko onak. Berakoa litzateke horren lekuko

rroko Iberikoak dira eta XVII. mendean Penintsulan egiten zen musikari egokituak daude. Mende horretan lau eskola ziren nagusi: Iparraldekoa, Zaragozako, Gaztelakoa eta Sevillakoa. Iparraldekoaren barruan kokatu behar dira bi instrumentuok. Organo hauek, geroago egin zirenekin alderatzen badira, txikiak dira, teklatu bakarrekoak, paretan sartuak eta musikak

Organoak ehungarren urtea bete duela-eta, Hernaniko Alejandro eta Jose Agustin Usabiagak zaharberritu egin dute. Bortzirietako herriko organoa 1895. urtean eraiki zen, hau da, Europa organogileen garrantzia gure lurraldean somatzen hasi zenean. Aristide Cavaille-Coll-en eskola indarrez sartu bazen ere Hegoaldean, Berako organoa Akillino Amezia azpeitiarrak egin



Berako organo erromantikoa duela gutxi zaharberritu da.

JAGOBA MANTEROLA

beste soinu bat du, garbia eta txio askorekin.

Baina XIX. mendea iritsi zen; eta honi jarraikiz musika erromantikoa. Mende berriak Nafarroara Europa osoan nagusitu zen musika hurbildu ezezik, Hegoaldean garrantzia hartzen hasi ziren organogile europarrak ekarri zituen. Hau dela-eta, Stoltz etxeak hartzen du Tolosako eta Bergarako organoak egiteko enkargua, eta Aristide Cavaille-Coll-ek Donostia, Azkoitia, Lekeitio eta Loiolakoak egiteko. Garai horretako da Berakoa, aurrekoak baino handiagoa eta hiru teklatuak. XX. mendean garaikideak izanen dira eta erabilgarriagoak egiten saiatuko dira. Mende honetan kokatzen da Iruñeko katedralekoa, 1946an eraikia, oso handia da, eta soinu aukera anitzekoa.

Antzinako organoa jotzeko sistema mekanikoa zen eta egun sistema elektrikoa erabiltzen hasiak dira. Haatik, horrek ez du erran nahi sistema aldatu egin denik, baizik eta instrumentuak handitzearekin batera eta organojolearen lana erraztu arren, jotzeko prozedura aldatu dela. Honek soinu mota gehiago eta hobekiago bideratuak lortzeko aukera eskaintzen du.

Artzapezpikutzak organoak moldatzekoan batez ere organoaren balio historikoa hartzen duela gogoratu Berako organo erromantikoak izan duen zaharberritzea ekarri dugu orrialdeotara. San Esteban parrokiako organoa duela gutxi inauguratu zuten Jean Pierre Lecaudey organojole frantziarrak.

Nafarroako organoak  
txukuntzen

Josu Goya Berako organojoleak dioenez organoa moldatu dutenez geroztik alde handia hartu du, jotzeko errazagoa delako eta soinua garbiagoa delako.

JAGOBA MANTEROLA

zuen. Amezuak, Europatik indarrez zetorren organo erromantikoak gaindutu nahirik erronka bezala hartu zuen Berako organoa egiteko enkargua. Kontratuaren amaieran erantsitakoak argi uzten du azpeitiarraren nahia: «Eta gaur egun arte aurkeztu diren atzerriko organo guztiak gaindituko ez balitu, aztertu eta onartu behar dutenek eskubidea izanen dute kontratu hau atzera botatzeko».

Beraz, kalitate handiko organoa dugu Berakoa. Nafarroan dauden artean handienetakoa eta erromantikoetan onena askoren ustez. Usabiaga anaiak ohituak daude lan honetan, urte asko baitaramatzate lanean. Akilino Amezua hernaniarraren enpresan hasi zen lanean Alejandro, eta hori itxi zenean bere kabuz hartu zuen lekukoa Jose Agustin anaiarekin batera. Alejandrok 50 urte egin ditu organoak zaharberritzen eta bere anaiak 20.

Horretara ohituak dauden arren, lana eman die Berako organoak. Jose Agustin Usabiagak azaldu duenez, lau hilabete aritu dira San Esteban parrokiako Instrumentua zaharberritzen. «Zaharberritzen diren organo guztien prozedura bera izan da. Desmontatu eta zatika garbitu dugu». 1895an inauguratu zenean ez zitzaion garbiketa sakonik egin eta hori igarri dutela azpimarratu du Jose Agustinek. Aurrena organoaren mekanika moldatu dute, hau da, organoa funtzionarazten duen barruko sare guztiak. Amezuak eraikitako organoak zailtasun handiak ematen zizkion organistari, barruko mekanika, soinua sortzeko

**Jose Agustin Usabiaga:** «Berako organoa zaharberritzea lau hilabeteko lana izan da. Guztia desmontatu, hauspo sistema aldatu eta tuboak garbitu eta birmoldatu ditugu batipat»

tirageen bidez egindako malguki sistema oso gogorra zelako. «Lehenago asko jan jan behar zen, organoa jotzeko zaila zegoelako. Orain guraize-malgukiak sartu dizkiogu eta horrela pultsazioak hobeagoak dira eta organoa errazagoa da jotzeko».

Berako organoa da Iruñeko katedralekoarekin eta Leirekoarekin batera Nafarroan hiru teklatu dituen bakarra. Usabiaga

anaiak egin duten aldaketa garrantzitsuena teklatu barruko hiru sekretuei malgukiak aldatzea izan da. Guztira 163 gurazte-malguki paratu dizkiote. Lehenago malgukiak presioarekin ondaratu egiten ziren eta soinua berantiarra zena. Era berean, musika erregistroen irristatzailerak ere moldatu dituzte. Tapak kendu eta arindu ostean, nahikoa tarte utzi dute haizeak bide

bakarra jarrai dezan eta batetik bestera iragan ez dadin. Lan guzti honek helburu zehatza izan du: «Organojolearen lana erraztea». Orain organoak azkarrago erantzuten du teklen aginduetara. Usabiagak dioena Josu Goya Berako San Esteban parrokiako organistak baieztatu du. «Konpondu zenez geroztik errazagoa da jotzeko eta soinua garbiagoa eta argiagoa da».

Honetaz landa, organoak izan duen beste moldaketa nabarmena eta azkenerako uzten dena, tuberia harmonizatzearena izan da. Berako organoak mila tubo baino gehiago ditu eta horiek «garbitu, moldeatu eta zaharbe-

rritu egin dira». Batetik, bi aldeetan dituen tubo kanonigoei —apaintzeko soilik daudenak— hautsa kendu diete eta moldeatu egin dituzte, saguzaharren eraginez oso kaltetuak zeudelako. Bestetik, gainontzeko kalitate handiko tuberia moldatu da. Bortzirietako herriko organoaren tuboak egurrezkoak eta eztaimukoak dira. Soinu grabeak egiteko dira egurrezko tuboak, lau metro ingurukoak, eta sekretuen aldamenen kokatzen dira aire asko behar dutelako. Estainuz egindakoak txikiagoak dira, bi metrokoak, eta barruko kajaren parte badira ere agerian daude. Denborarekin kolpe asko izan dituzte, eta oso sentikorak direnez, egurrezko moldeak erabili dira hasierako forma emateko. Tuboak moldatzen soinua asko irabazi du. Organoak lehena gotik ere oso soinu «onak eta goxoak» ateratzen bazituen ere, orain garbiagoak dira. «Berako organoak soinu argentinoa du, hau da, oso kalitate onekoa da eztaimuz egindako tuboak oso onak direlako. Geroagoko organo asko, moda eta diru falta zela eta, zinkarekin eta eztaimuzaren beste aleazio batzuekin egiten hasi ziren, eta asko galdu dute kalitatean». Hau egin eta gero, tubo guztiak afinatu egiten dira eta kendutako ordenu berean paratzen dira organoan.

Barruko mekanikak eta tuboek ezezik, kanpoko kajak eta teklatuak ere konpondu dira. Kaja, zedro egurrez egina denez, gogorra da oso, eta pipiak hartua egon ez arren, tratatua izan da. Teklatuak ez du arazo handirik eman eta gaizki zeudenak aldatu dira. X

## Ustarrozekoa bide beretik

ORGANOAK moldatzeko Artzapezpikutzatza-barrutiaren irizpidea balio historikoa eta erabilgarritasuna uztartzea denez, Berakoa ezezik beste batzuk ere zaharberritzen ari dira herrialdean, horien artean Uztarrozekoa, Mendigorriakoa edo Corellakoa. Zaharberritzeak eguneroko lana diren arren, Uztarrozekoak aparteko garrantzi historikoa du. Barroko garaikoa, Penintsulan XVIII. mendean zegoen Barroko Iberiarraren estilokoa da eta balio historiko handia du.

Uztarrozeko Santa Engrazi parrokiako

organoa txikia da, teklatu bakarrekota eta paretan ezarria. Julian Ayesa Artzapezpikutzako Organoen Zaintze Zerbitzuko zuzendariak dioenez,

Erronkariko organoaren balioa eta bereziki Uztarrozekoarena historikoa da. Gainera, Nafarroan organeriak garrantzia hartu zuen garaian egindakoa da.

Uztarrozeko organoaren antzinako egitura eta konposaketa, kontratuan azaltzen denez, Mathias Rueda Mañeru iruindarrak egin zuen 1738an, eta egun, aldaketa gutxi batzuk salbu, berak utzi zuen bezala aur-

kitu daiteke. Ayesaren eta beste aditu batzuen irudiko zaharberrituz gero, herrialdean dauden Barroko garaiko organoaren artean hobereena izan daiteke. Hala ere, eta artisautza lanak oso garestiak direla kontutan izanik, garbitu eta zaharberritu egingo dute eta pipiaren aurkako tratamendua egiten diote kajan. Garbiketaren ardura Frantziako Sauvin etxeak hartu du bere gain.

Uztarrozeko organoaren egileari buruz deus gutxi esan daiteke. Instrumentua Nafarroan organogile es-

kolak indarrean zehar denean —batez ere Lerinekoa— egin zen. Rueda Mañeru organogileak erabiltzen zituen lan tekniketaz dagoen informazioa ez da handia. Ruedak berak egin zuen 1740ean desagertutako Iruñeko katedraleko organoa.

Ildo beretik, beste organogile asko izan ziren garai hartan Nafarroan, Frantziatik eta Logroñon ikasiak. Haatik, hauen ekarpenak baloratzea lan zaila litzateke; sailkapen bat egitean Leringo eskola aipagarriena bada ere, beste gune batzuetan ere aurki daitezke.

Xanti Begiristain

## Hamabi urterekin ama izan, nahi gabe

■ Egia esan nik oso gutxi dakit El Salvadorreko benetako egoera eta gora-beherei buruz, baina aurreko egunetan ikusi nuen zenbait gauza erreportaia batean, eta arrunt adierazgarria iruditu zitzaizkidanez gero, hemen iruzkindu nahi ditut pixka batez.

Esate baterako, oso ederki nabaritzen zen bakar batzuk hagitz ongi bizi direla oparatasunean, eta beste asko aldiz, gehienak gainera, erabateko txirotasunean. Hala ba, ikus zitekeen behartsuak nola joaten diren zabortegetara, kamioiek botatzen dituzten hondakinen artean hondar aprobetxagarriak bilatu eta hartzea, eta gainera beleen lehiarekin; hauek ere beren zatia nahi baitute. Bitartean, jakina, aberatsak eta handi-mandiak ez dira konformatzen bere luxuzko etxe eta mantsioak izatearekin, baizik eta badaezpada ere, inguruko horma eta harresiak erantzen dizkiete alambre elektrikoak defentsa moduan, beren altxor preziatuak hobeki gordetzeko behar tsuen esku «suntsi-tzaile» eta

«lapurretatik». Nabaria denez, «leku guztietan txakurrak oinutsik ibili ohi dira». Aspektu hau bukatzeko esango dut denda gehienetan polizia armatuak aritzen direla zainketa lanetan lapurretak saihesteko.

Baina hona hemen El Salvadorreko beste datu adierazgarri batzuk:

- 1- Orain ez dago gerra ofizialik, baina erreportaian esan zutenaren arabera, lehen baino hildako gehiago izaten omen dira egunero. Beraz, argi eta garbi nabaritzen da han ez dagoela bake giro sendo eta bidezkorik.
- 2- Jende asko ikusten zen oinetakorik gabe, oinutsik, hala helduak nola haurrak, batzuk oinez, beste batzuk bizikletaz, eta ez ziren falta, era berean, ur putzutxo gainean egoten zirenak.
- 3- Egunero, batez beste, bederatzi bortxaketa kasu edo gehiago salatzen omen dira, baina denok dakigu kasu asko eta asko, hainbat arrazoiengatik, ez direla behin ere salatzen. Hortaz, hortik

hartu ahal dugu hango egoeraren ideia garbi bat bortxaketegi dagokienez.

Azkeneko honek guztiak dakar neska gaztetxo asko ama izatea, printzipioz nahi gabe, bortxaketen ondorioz. Eta jakina, abortu asko ere bai.

Haurdun gelditu eta ama izatera iritsi direnen artean, botxatua izan ondoren noski, programa horretan erakutsi zuten hamabi urteko neskatxa baten gora-behera. Hasiera batean inguruko pertsona helduek pentsatu zuten abortaraztea. Gero neskatilaren amak pentsatu zuen hobe izango zela ez abortatu eta haurtxoa izatea. Gero, berandua, umetxo jaioberria norbaiti emateko edota nonbaitera eramateko. Kontua zera da, jaioberria izan ondoren erabaki zuten beraiek haziko zutela,



hau da, hamabi urteko neskatxak (haurtxoaren amak) eta umetxoaren amonak (hau ere oso emakume gaztea).

Zinez hunkigarria izan zen ikustea hamabi urteko neskatikoa hilabete gutxiko bere haurtxoarekin paseoan, titia ematen eta esanez jaioberri hori maite-maite duela.

Neskatilaren amak bete-betean laguntzen dio alabari haurtxoa hazten eta hezten. Era berean, laguntza psikologikoa ere ematen dio pertsona profesional batek, eta aldi berean, ama berria joskina izateko ikasten ari da tailer batean.

Bukatzeko gauza gutxi esan dezaket, baina hala ere zertxobait behintzat adierazi nahi dut, alegia, mundu edota gizarte honetan zuzentasuna eta bidezkotasuna behar ditugula. Alabaina, hainbestetan eta hainbeste lekutan falta baditugu ere, onuragarria izan liteke ezbeharrei eta zoritxarrekoiei ere alderdi positiboa bilatu eta aurkitzea, baldin badu behinik behin. ■

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

## Althabe xiberotarraren uskal lanak (eta bida)

■ Joan den astean ukan Jean Batiste Althabe zenaren idazlanekin jarraikiz hona hemen mauletarrak karrikaratu bigarrena. *Honkailu berrien enthelegia ciberouko laborarier* Baionan ageri zen aurrekoan aipatu etxean berean lau urte beranduxeko, 1904.ean hots. Esan behar da ordea Goienetxe mirikuak ere bazuela ongarriei buruzko lan bat egina, ez ordea Ziberoko laborariei soilik egina, Iparraldeko guziei baizik. *Laborarier zombelt kontzeitu berechi ongarrri erremedio berriez*, Baionan ere ageri zena, Lasserrerenean baina. Halaber eta pisuzko lan bat ez izan arren, ekar liteke hontara Vinsonenean dagerkigun sarrera, hau da, *Mono-phospho-guanoaz: argia angeles compania the biphosphated guano Londresen Europa guzico saltze escua duena: Franzian saltze cargua dutenac Bayonan eta Bordelen F. de Fontclair, Lara eta Cia.*, berriz ere Lapurdiko hiriburuan 1874.ean ageri zena, *Mono-phospho-guano et son emploi 15 orrialde duen izenburuko kaierraren itzulpen zuzena*. Edozein modutan ere, Althaberen jana ez da inolaz ere zerbait burokratiko edota publizitarioa, eta benetan laborariei zuzenduriko idazki erabilgarri asko agitzen da: *Hitz bat hounkailiez: Beste da gouanoa, beste engrais chimiques dielako hounkailiak. Gouanoa da hegaisti elibatek saldouan, itchaz bazterreko harpe elibatetan alherbustatzez, egiten dien houngarria. Engrais chimiques dielakoak aldiz, erhautz elibat dira edo gatz suberte elibat. Ezta dudarik hounkailu hortek egiten diela houn handi lurari. Bena yakin behar da noula cerbutcha. Behar den gizan ezpaltinbadira emanik, despendioua bada eta ez profeturik. Aren yakin behar da: azota, phosphora, potaza eta latzuna edo plastria, hortek diela mtrakullu egillak. Lurrak behar du orano ukhen burdugna khusu bat, magnezia, carbona, oxygena, hydrogena, sofre, cholra, silza, manganeza, souda, bena usain lurak berak badutu, eta aidiak eta ebiak nasalki ematen deitzo.* Ohizkoa izan den, eta oraino den, ongarriri naturala, gorotza edo Nafarroako fiemoa, etzuen bereziki goersten: «Gaiza houna da, bena lur flaku edo flakatu batetan ezta berak aski indar». Horregaitio, eta gorotza gutiz gehien erdeinatu barik, berak deitu engrais chimiques hobetsi zituen. Edozein modutan laboraria gogoan zuen eta aholku ezin zuzenagoak igorri zizkion: «Saltzaleak algareki nahasirik saltzen dutie erhaoutzak eta deitzen engrais complet. Hobe izake eta merktago ere nourk berak nahasirik hounkaila bakhotcha bere alde erosirik».

Finitzeko aipatu Althaberen hirugarren lana ekarriko dugu hontara, niholaz ere lekoratzeke, beha dezagun bada gaingiroki izan bada ere. Euskaltzaleen Biltzarrak 1910.eko agorrilaren 25ean Donostian ospatu bilerarako Althabek ondu hitz zerrenda kamuts bat aurkeztu zen. Eta kamuts diogu Althabe labor geratu zitzaigulako, laburraren labor. Eta bere laburtasunean goien graduko halarik ere, ezin erakargarriagoa baiteritzagu. Jean Jaurgain zenak Azkueren hiztegiaren azaltzen ez zirenak Lekeltiokoari igortzea proposatu zuen. Althabek ez bide zituen hitzak Maulen aditu, baina bai bere bikalgo eta bere erretorgoako berrogei urtetan, eta Atharratzeko erretora zen Baratzabal eta Zalgizekoa zen Iribarnerengandik bat baino gehiago hartuak zituen nonbait. Althabe hiltzerako, eta 1991.eko RIEV aldizkarian Azkuek bere hiztegiaren ez zekartzanak edota bestelako adierak gehi zekizkienak argitaratu eman ziren gaika: «Eihera edo errotetako gauzen izenetarik», «Ehundegiko edo Ehaille lantegiko gauza batzuen izenak», eta «Gauza batzuberterren izenetarik». Bihoa orain segituan sarreren bat erakusgarri eta gu guzior erakusgarri: *Bekhatitcha: Ohial landerki puchka, bi errien artean hartzen dena, hartari lotzeko, eta astalkatzean errien ez plkatzeko. Bekhatitchele: Funtsik gabeko solasak. Bekhatitcheglzon: funtsik gabeko solasetarik dariozkona: «Akhurazgora: erroz gora, hortzez gora». «Arozila: Gilz edo gakh-zilho aphainduzkoa. Oihalaren zilho ustekabeko bati orratzaz eginikako tapagailu pollita». «Arina: mendi bide zut eta harritsu». «Basakanata: hargamasazko parera». «Desgantzola: Traste, zakhu gizki josta». «Eskonfarta: Itchura eder eta sendoko jendea». «Gorthatü: Elgar berotu, gozatu». «Hoia: aro gotbela». «Ithelür: Alhor bazterreko lur, erdirat arthikta, lehembiziko hildoaren harat etzateko». «Kunderrak: arrosarioak». «Mütücha: jende tontoa». «Noha: Bekhalzeria». «Zahardoka: zigor gaitz bat». «Zerephel: erdi ephel». «Zurphoa: ongarr metatua». ■*



Nafarroako taldekako txapelketako maila nagusiko lehenengo jardunaldiko partida, 1996ko azaroaren 1ean jokatua.

**Iñaki Rebole** (Iruñeko Orvina "A"), 2.145 ELOkoa — **Javier Ayucar** (Lizarrako Alekhine "A"), 1.835 ELOkoa.


1.Zf3,Zf6; 2.d4,g6; 3.g3,Ag7; 4.Ag2,0-0; 5.0-0, d6; 6.c4, bZ-d7; 7.Zc3,

e5; 8.e5,e5; 9.Dc2, c6; 10.h3, De7; 11.e4, a5; 12. Ae3, Zc5; 13.b3, Ad7; 14. aG-dl, fG-d8; 15.Gd2, b5.

Ikus koadroa. Beltzek hanka sartu dute, eta ordaina pieza bat da.

16.b5, b5; 17. Zd5; 18. Ac5, aG-c8; 19. Ae7.

Gaztelua galtzen dutenez, beltzek etsi egin dute. Erdiko jokoan nahastu ziren.



# Itxuraldaketa

CDN, PSN eta IUk osatutako gobernuak Iruñeko erdigunean iraultza urbanistikoa egin nahi du

**U**daleko hiruko gobernuak, erabaki ikusgarriak plazaratzeko bere ohiturari jarraiki, Iruñeko erdigunea itxuraldatzeko asmoa azaldu du. Entzutegi zaharra harriz harri lekuz aldatu nahi du, eta modu horretan Gaztelu plaza eta Gotorlekuaren arteko gunean aldaketa iraultzailea egin. Ideiak estreinako kritikak jaso ditu jada.

Juan Kruz Lakasta / Iruñea



Egun Padre Moret izena duen aparkaleku honetan paratu nahi da Entzutegia eta Kongresuetarako Auditoriuma.

JOXE LACALLE



RAMON GARITANO eta Vicente Taberna udal arkitektoak egun indarrean dagoen 1984ko Iruñeko Ordenu Urbanistiko Plan Orokorra birraztertzen ari dira. Zeregin horretan dihardutela, ideia bat bururatu zaie, Iruñeko erdigunea itxuralda dezakeen ideia hain zuzen ere.

Sarasate paseabideko Entzutegi zaharreko eraikina bota, eta Padre Moret kaleko aparkalekuan, Gobernu Militarraren parean, harriz harri birreraiki nahi dute. Halaber, Kongresu Jauregia eta Auditoriuma beren baitan gordeko lituzkeen eraikina egin nahi dute aparkaleku berean, baina Yanguas y Miranda kalean, Iruñeko Udal Aurrezki Kutxaren ondoan. Hori guztia egin ahal izateko, egungo aparkalekua lurpeko aparkaleku bilakatuko lukete, eta plaza handia eginen lukete birreraikitako Entzutegiaren eta Auditorium berriaren artean izango litzatekeen hutsunean.

Garitanoren eta Tabernaren aburuz, horrek guztiak hainbat abantaila ekarriko lituzke. Hiriko erdigunea Donibane, Iturrama eta Ermitagaña bezalako auzo berriekin lotuko luke. Trafikoa arinduko luke, Yanguas y Miranda eta Navas de Tolosa kaleek bi norabideko kale zabala osatzerik izanen bailukete. Oinezkoentzako eremu erraldoia sortuko luke; izan ere, Padre Moret eta Marques de Rozalejo kaleak desagertuko lirateke, eta oinezkoek Foruen monumentutik Gotorlekuraino errepide bakarra zeharkatuz joaterik izanen lukete.

Nafarroako Parlamentuari ere on eginen ei lioke hirigintza plan iraultzaileak. Jakina denez, Entzutegi zaharreko eraikinak Parlamentuaren egoitza hartuko du bere baitan. Eraikin hori lekuz aldatuko balitz, legislatiboaren egoitzak sarrera argiagoa izanen luke, zabalagoa, plazara emanen lukeena. Bestalde, lurpeko aparkaleku handiagoa edukitzerik izanen luke.

Bi arkitektoek euren ideiak abantaila sorta mardula ekarriko lukeela iritzi badiote ere, jakin badakite kritikak sor ditzakeela. Hori dela kausa, ideia proiektu bezala tramitatzeko hasi aurretik, Iruñeko Udaleko hiruko gobernuaren (CDN, PSN eta IU) babespean plazaratu egin dute, hirigintza plangintzaren inguruko debate zabala bultzatzeko xedearekin.

Lehenik eta behin, Lola Eguren Parlamentuko presidenteari eman zioten proiektuaren berri, gero udaleko alderdietako bozeramaileei azaldu zieten, joan den astean prentsaurrekoan aurkeztu zuten, eta aurki horren inguruko ezbairak bultzatuko dute Arkitektoen Elkargoan.

Udaleko arkitektoen arabera, oraingoa Iruñeko zonalde hori eraldatzeko azken aukera izanen da.

Orain arte, Nafarroako Entzutegia zegoen Sarasate paseabideko eraikinean. Hemendik aurrera, Nafarroako Parlamentua izanen da. Tabernaren esanetan, «aldaketa orain egiten ez bada, ez da inoiz eginen; beraz, honako hau da aukera aztertzeko unea».

## Arazoak arazo

RAMON GARITANO eta Vicente Taberna arkitektoen ideiak zenbait onarpen jaso ditu jada. Alberto Petri HBko zinegotziak proposamen «ona eta interesgarria» dela adierazi du, eta Tomas Caballero UPNko zinegotziak «kontutan hartzeko modukoa» dela. Hiruko gobernuo kideek (CDN, PSN-PSOE eta IU), jakina, lore andana eskaini diote proiektuari.

Baina ideiak, halaber, dagoeneko estreinako oztipoa topatu du bere aitzinean. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak bere jatorrizko proiektuarekin —hau da, Entzutegia dagoen tokian utzi eta lejislatiboaren egoitza izan dadin zaharberitzeko proiektuarekin— aitzina segitzeko erabakia hartu zuen joan den asteleheneko bilkuran.

Vicente Taberna arkitektoaren irudikoz, erabaki hori ez da arazo larriegia. «Nahiko normala da Parlamentuak hartu duen erabakia, ideia ez duelako ofizialki ezagutzen, Parlamentuari eta Gobernuari geure burua eskaini diegu ideia azaltzeko. Ikusiko dugu hori finkoa den, ea horrek islatzen duen talde parlamentariarik ez dutela gure proiektua onartzen».

Tomas Urzainki Iruñeko Hondare Historiko-Artistikoa- ren Aldeko Plataformako kidearen irudikoz, Udalaren zein Parlamentuaren proiektuek oztipo erraldoia topatuko dute euren aurrean, Entzutegi zaharreko eraikina legez babestuta dagoela hain zuzen ere. «Iruñeko Plan Urbanistiko Oro-

korrak babesturiko eraikina da. Gauzak horrela, ezin dute bota, eta legearen arabera bere funtzioa aldatzea erabakitzen badute, bere jatorrizko egitura errespetatuz egin beharko dute hori».

Urzainkiren aburuz, «basakeria» litzateke Entzutegia birreraikitzen saiatzea. «Birreraikitako dutela esatea ziri-sartzea besterik ez da, laupabost gauza besterik ez litzukete mantenduko eta. Iruñeko Lehen Zabalguneko hiru etxe besterik ez dira geratzen, Entzutegia horietako bat da, eta sekulako balioa du. Gainera, urbanistikoki hiriak ez luke irabaziko, Sarasate paseabideak ez luke-eta zuzen aurrera eginen, bihurtzea eginen luke, eta paseabideari bere xarma kenduko likete. Aitzinako birrirtzeko zaletasuna dute, lekuz kanpokoa. Egund hiri guztietan errespetatzen da hondarea, hemen izan ezik».

Tabernaren ustez, berriz, arazo legala ez da garrantzitsua. «Plan orokor berak plana alda daitezela zehazten du, bada horretarako prozedura legala; arazoa ez da juridikoa. Ez dugu Entzutegia botatzea edo ez botatzea planteatzen. Planteatzen duguna hiriaren erdialdeko proiektu publikoa da. Azter dezagun hiriak aldaketa honekin irabazten duen edo ez. Horrelako gauza bat egiteko nolabaiteko kontsentsua behar da. Ez bada lortzen zaila izanen da aurrera ateratzea, baina, gutxienez, aukera badagoela jakinarazi dugu». X

Iruñeko udaleko hiruko gobernuak begi onez ikusi duen Proiektua gauzatzekotan, oinezkoek Foruen monumentutik Gotorlekuraino errepide bakarra zeharkatuz joaterik izanen lukete

◆ Pettiri Harispuru ◆ Makila egilea

# «Makila oraindik ezezaguna da Hegoaldean»

**M**akilaren tradizioa oso errotua dago Iparraldean. Askok dira Nafarroa Beherean, Lapurdin eta Zuberoan lanbide honetan aritzen direnak. Ugarriak diren arren, egun Iparraldean desagertzearen mizpirarekin makilak egiteko tradizioa bi artisau bakarrik jarraitzen dute, Harispuru anaiek hain zuzen ere.

Julen Arriola / Ibarra

MIZPIRA zurarekin egindako makilen tradizioa gero eta urriagoa den arren, Pettiri Harispuruk eta bere anaia Panpi horretan lanean dihardute oraindik Nafarroa Behereko Ibarra herrian duten tallerrean.

■ Nola hasi zinen makilak egiten?

Familiaren tradizioa ez den arren, aita nekazaria baita, hamaika urte daramatzagu anaiek eta biok makilak egiten. Makilak egiten hasi baino lehen anaia eta biok Biarnoko ebanisteria enpresa batean aritu ginen zizelkari gisa altzari apaintetan. Makilak egiten kasualitatez hasi ginen. Behin, ofizioa utzi nahi zuen makilgile bati makila bat erosi genion; berak lana utzi nahi zuela eta lekukoa hartzeko norbaiten bila zebilela aipatu zigun. Zizelkaritzaren lana beherantz zihola ikusirik, pentsatu genuen makilgintza bigarren lanbide gisa irtenbidea izan zitekeela. Lau urte igaro genituen bi lanbideetan, eta duela zortzi ari gara honetan. Harritzekoa bada ere, Hegoaldean ez dago makilaren tradizioarik. Historiak makila Iparraldeko hiru herrialdeetan kokatzen du; Hegoaldean, ordea, beti ezezaguna izan da. Telesforo Monzonek egindako zuzen ezaguna. Egund, Hegoaldean Irungo Alberdi anaiek bakarrik

egiten dituzte, eta, esan digutenez, lan handia da ezagutzera ematea.

■ Zuen makilak mizpiraren zurarekin eginak daude. Non aurkitzen duzue?

Horixe da, hain zuzen ere, gure arazoa, Euskal Herriko basoetan mizpira aurkitzea gero eta zailagoa baita. Biarnoko basoetara edo Pirinio Garaietako Gers eskualderaino joan behar izaten dugu mizpira bila. Baso horietan mizpira zuhaitzen oinean hazitzen da, eta, gainera, modu naturalean.

■ Hara joan eta egurren hartzea ez da nolanihi eginen, ezta?

Udal mendietan edo Basoen Bulego Nazionalaren lurretan hartzeko baimena dugu. Mizpiraren makila prestatzeak lan asko darama. Neurri egokia lortzeko sei edo zazpi urte behar ditu, eta urtero hostoak eta adarrak moztu behar zaizkio zuzen hazteko. Moztu baino urte bat lehenago, udaberrian, koskatze lana egiten da. Horrela, zainerien markak erliebean marrazten dira ebakiduratan. Horiek ematen diote makilari ohiko ingerada.

■ Oraindik ere, Euskal Herrian mizpirak aurki daitezke?

Zuberoan oraindik aurki daitezke, baina oso gutxi. Lehenago mizpira gehiago zen baso hostotsu gehiago zelako. Pentsa garai batean zenbat genituen, Nafarroa Behereko Donazaharre herrian mizpiren feria egiten zela! Gainera, gazteak duela bost urte izen bera daraman feria berpizten hasiak dira. Guk geuk duela sei urte Ibarra landatu genituen eta orain biltzen hasi gara.

■ Nola egiten duzu makila?

Basoko mizpira neguan moztzen da eta labe batetik pasatuz zuritzen da. Gero, ohiko kolore iluna har dezan, kare bizia ematen zaio. Ondoren, guztiontzat ezaguna dena eransten zaio: goialdean historikoki defentsarako erabili izan den altzairuzko eztena, la-



Pettiri Harispuru makilak egiten Ibarra baserriko tallerrean.

JULEN ARRIOLA

rruan txirikordatutako eskutokian gordea eta zuraz egindako ezpata-sagarra. Behealdean, mailtxorta jartzen da hainbat ikurrekin grabatuta. Behin hau egin eta gero, makila orekatzen da galandan beruna sartuz, eta altzairuz egindako mahats-parra gisako apaindura paratzen zaio moneta edo latoi pieza batekin zeharkatuz.

■ Urtero zenbat makila egiten dituzue?

510 eta 550, tarte horretan. Makila bat egiteko gutxienez egun bat behar duzu. Grabatu behar dituzun elementuek ere badute zerikusia.

■ Nork erosten ditu makilak?

Gure bezeroa hemengoa da eta makila oparitzeko erosten du. Udalek, enpresek, administrazioek eta kirol taldeek nahikoa erosten dute. Partikularrek, berriaz, oparitzeko izaten dituzte: ezkontzetan, urtebetetzeetan eta

zilarrezko ezteietan eskaintzeko. Lehen asko erabiltzen zen: ibiltzeko, edota mezetara edo feriara joateko. Laguntzeko eta, era berean, defentsarako balio izan du.

■ Zer eskatzen du bezeroak makilak grabatzeko?

Makilan garai batean erabiltzen ziren sinbologien katalogoa badugun arren, ordain dezakeen prezioaren arabera egiten du eskaera bezeroak. Batzuek bere baserriko armak edo herriko ezkutua grabatzen dituzte. Beti grabatzen dugu pertsonaren izena eta kirtenean gustuko duen esaldia paratzen diogu. Nahi izanez gero, Ramuntxo Partarrieuk berreskuratu duen euskal alfabeto tradizionalaren tipologian grabatzen diogu. Ohorezko makila nahiago dutenak ere badira. Zilarrezko heldulekua darama eta heptagono formako ezpata-sagarra, hau da, zazpi aurpegi Euskal Herriko zazpi probintzientzat.

s o s l a i a

Biarnoko ebanisteria enpresak Nafarroa Behereko artisauen eta artisten eskola izan dira. Horren lekuko dira hain ikasitako Pierres Erdozainzi eskultoreak edo Panpi eta Pettiri Harispuru anaiek. «Altzairu-apaintetan lan egiten dugunon artean eskultore bat zegoen eta berarekin ikasi genuen zizelkari lana», diote makilaren negozioan hasi baino lehen ofizioa ikasten hamar urte igaro zituzten bi anaiek.

Euskal Herrian mizpira berreskuratzea ez da erraza. Orain dela sei urte Panpi eta Pettirik 1.000 kimu landatu zituzten eta, horietatik, gaur egun 800 doaz gora. 1994an ehun bat bildu zituzten, joan den urtean 150 eta aurten 350. Mizpira zuhaitzak prestatzea lan nekosoa eta gogorra da. Hori gutxi balitz bezala, prozesu guztia eskuz egin behar da.

Lana oso akigarria izan arren, makilak egiten jarraitzeko asmoa ezezik urtean Gersko eskualderaino dauden 300 kilometroak zeharkatzeko ere prest daude. «Dozein egunetan ekaitzak edo haize erauntiak zazpi urteko lana erotik aterako litu gukeen arren».

■ Produktu turistikoa ere bilakatu da?

Kanpotarrek ere estimatzen dute. Oroitzapen gisa edo erabiltzeko erosten dute. Ez dugu dendentzat kasik lan egiten, behar duena honaino etortzen da eskatzera. Datorren urterako udan etortzen diren udalaren mandatuek baditugun arren, beti hemengo biztanleen eskaerak dute lehentasuna.

■ Hala ere, merkatuan ikusten diren makila guztiak ez dira joera tradizionalak?

Mizpira makilak bik bakarrik egiten ditugu: guk eta Larresoroko (Lapurdin) Bergarak. Bergara familiak urteak daramatza makilak egiten, diotenez Frantziako Iraultza baino lehenagotik. Irungo Alberdi anaiek, mizpiraz gain, batez ere gaztainarekin egiten dute lan. Dendetan ez dira ohiko makilak aurkitzen, Baionan gaztainarekin egindakoak baizik.

«Gure arazoa mizpira aurkitzea da, Euskal Herrian gero eta zailagoa baita. Biarnora edo Pirinio Garaietako Gers eskualderaino joan behar izaten dugu egurraren bila»

## LUCRANDO

LIRIKAZ  
HONATAGO  
37

GAUR:  
TXIMELETA  
REGGAE

Bernardo Aizaga

Tximeleta haiek hegalean egiten  
itsasoaren ixiltasunerantz;  
Ez joan, ez joan, itxaso honetan  
pausalekurik ez da

Ez dago irilarik

Ez dago harkaitzik

itxasoan ez dago

ur iluna besterik

## ZALDI EROA